
I. DOKUMENTUA - MEMORIA

1. - SARRERA

Europako Liburu Zuriak dioenez, ekintza estrategia eta plana bateratua burutzeko, Energia Berriztagarrien Iturriak garatzeak biziki lagun dezake ingurumena babesten, energia hornikuntza ziurtatzen eta dibertsifikatzen, ekonomia garatzen, lana sortzen, industria teknologian eta lehiakortasunean hobetzen, eta baita kohesio ekonomiko eta soziala lortzen ere.

Energia berriztagarrien artean, eolikoa da etorkizun gehien duenetako bat. Gainera, energia eolikoa, bertako baliabide energetiko gisa, asko erabil daiteke. Eta hori energia eolikoak duen garapen mailagatik eta kostuagatik ez ezik, energia garbia eta agortezina delako ere bai.

Energia eolikoa aerosorgailuen bidez aprobetxatzen da. Aerosorgailuak mota, tamaina eta potentzia desberdinetakoak daude. Erabilera desberdinen arabera, aerosorgailuak bakarka edo multzoka jar daitezke; aerosorgailu multzoari “parke eolikoa” deitzen zaio. Parke eolikoan aireko energia erabilgarri bihurtzeko behar diren ekipoak daude.

Baina, horrelako energia motaren abantailak energi, gizarte, ekonomi, teknologi eta ingurumen arloetan ukaezinak badira ere, parke eolikoek, hartuko dituzten lurak direla-eta eragin nabarmen samarra izan dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean, nahiko argi baitago sektorea azkar haziko dela, energia mota hau errentagarri egiten duten aurrerapen teknologikoekin batera hazi ere.

Horregatik, garrantzia handiko erabakia da parkeen kokalekuak —jakina, haizearen indarraren baitan daude— aurreikustea eta hautatzea. Eta erabakia hain garrantzitsua izanik, Eusko Legebiltzarrak beharrezkoa ikusi zuen kokaleku eolikoak planifikatzea. Horrela, transakzio zuzenketa baten bidez, energia eolikoari buruz ez-lege proposamen bat aurkeztu zen (Osoko Bilkura, 1997-03-20). Honela dio proposamenak:

“1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Energia Eolikoari buruzko Lurralde Plan Sektoriala lehenbailehen egitea, Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bidez. Plan horretan, arreta berezia jarriko zaio agente sozialen (udalak, talde babesleak, sektore eolikoko enpresak...) parte-hartzeari, Plana jendaurrean dagoen aldietan.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ingurumena faktorerik garrantzitsuenetakotzat hartzea, aipatutako Lurralde Plan Sektorial hori egiterakoan. Horixe da Lurralde Antolamendurako lldoetan esaten dena.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ingurumen inpaktuaren ebaluazioari buruzko euskal legerik ez dagoen bitartean, parke eolikoak instalatzeko proiektuei azterketa exijitzea. Azterketa horretan, parkeak ingurumenean duen inpaktua ez ezik, inpaktua gutxitzeko neurriak ere azalduko dira. Azterketa horrek, edozein modutan, 1302/86 eta 131/88 Dekretuetan ingurumen inpaktuen inguruko ebaluazioetan hartzen diren zuhurtasunak bermatuko ditu.”

lldo berean, Arabako Batzar Nagusiek, Osoko Bilkuran, apirilaren 14ko 3/1997 Mozioa onartu zuten, Araban energia eolikoa planifikatzeari buruzkoa. Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere, Osoko Bilkuran, Ez Arau proposamena onartu zuten, 1997ko uztailaren 2an. Bi akordioak eta Legebiltzarraren proposamena ia berdinak dira.

Horrela, bada, Lurralde Plan Sektorial hau eskaera horiekin bat dator. Planaren bidez nahi da, bertako baliabide natural hau aprobetxatzeko, kokaleku eoliko egokienak identifikatzea, hautatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduan integratzea. Hori guztia ingurumen faktorea faktorerik garrantzitsuenetakotzat hartuz.